



HANDITZEN NAIZENEAN TXAKURRA IZAN NAHI DUT



LIBURUAREN FITXA

A. Schneider, “*Handitzen naizenean txakurra izan nahi dut*” Ttartalo arg. 2009

ARGUDIOA

Narrazio honetan mutiko baten eta txakur baten ezberdintasunak agerian uzten dira tonu goxo batean sorturiko kontaktetan.

Mutikoa eta Tim txakurra lagun onak dira, elkarrekin dabilta, elkarrekin jolas egiten dute... Mutikoak txakurra izan nahiko luke eta liburuan azaltzen digu zergatia, baina azkenean konturatzen da txakurrak ezin dituela berak egiten dituen gauza asko egin eta orain arteko harremanarekin pozik geratuko da.

Marrazki xamurrak, testu laburraren laguntzaile direlarik, irudi guztiek bi orrialdeak hartzen dituzte, testuan agertzen ez diren bestelako xehetasunak ere agerraraziz.

IRAKURKETA

Lehen batean, orriz orri irakurri eta erakutsiko zaie liburu osoa. Ondoren, interbentzio pentsatua eta elaboratua egitea proposatzen dugu. Hemen aurkituko duzue horrelako bat egiteko gida txiki bat.

Orriz orri eraikiko dugu liburu honen egitura narratiboa: identifikazioa, behaketa zehatza, elementuen hurrenkera, sentimenduzko lotura, konparaketa edota lotura liburu hau eta beste baten artean....

- Alde batean, bi adar daude, bestean umea Timen gainean dago. Zein da handigoa? Zer dute atzean? Etxeko lorategian al daude? Gustura al daude? Zergatik?
- Hesiarren atea zabaldu da, nora atera dira? Zertan ari dira? Gustatzen al zaizu zuri? Zeinek du mingain luzeagoa? Erraza al da lau hanketan ibiltzea?
- Pilota ikusten dugun lehen aldia al da? Nola deituko zenioke jolas honi? Gustukoa al duzu? Zein dago gusturago, Tim ala umea?
- Lehen hausketa: baina, umeak ezin du Timek bezala ilea astindu:
- Labadora behar du, komuna behar du, lana egin eta irabazi behar dugu



- Bigarren hausketa: bidean neska baten irudia dago, ezpata, poltsa bat...
- Umea pentsatzen ari da. Zertan pentsatzen du?
- ...

Bukaera bitartean eskema bera aurkituko dugu: gaiak hartzen du norabide berria: gurasoekin egiten dituen gauzak ezin ditu Timekin egin, piratarena ere ez. Eta inportanteena, maite duen neskak beldur die txakurrei.

PROPOSAMENA

- Handitzen zarenean, zein animalia izan nahi duzu? Zergatik?
- Marraztu zure burua animalia horren itxuran
- Dikta egiozu zure irakasleari zergatik izan nahi duzun animalia hori.